

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Behin honetara ezkerro... neurrialdia
ere bai!!

EGILEA:

Josune Zabala Alberdi

DATA:

2018/05/17



LABURPENA

EUSKARALDIA: 11 egun euskaraz programaren lehen zirriborrotik egonkortzerako bidean zela ezagutu genuen Lasarte-Orian “irten armairutik” erronkaren gainean egindako ikerketa. Pello Jauregik aurkeztu zuen ekimenaren neurketa kuantitatiboaren emaitza: erronka hasi baino lehen, erronka amaitu orduko eta handik hiru hilabetera partaideek aitortutako datuak zein ziren erakutsi zigun. Ekimenean parte hartu zuten kideek emandako balioa berretsi eta objektibizatzen lagundu zigun lan hark.

Ondo dakigun bezala, 2018rako *EUSKARALDIA: 11 egun euskaraz*, herritarren hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskaltzaleak aktibatzen xedez sortutako dinamika da, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) eta *Euskaltzaleen Topaguneak* lankidetzan sustatzen dutena.

Euskal Herri mailako ekimena izanik, eta HPSren helburu estrategikoetako lau batera gauzatzea gindoazelarik, zilegi bezain beharrezko jo genuen neurketa ere egitea. Gure indarrak, besteak beste, erabileran eta gizarte aktibazioan, lankidetzan jarri nahi ditugunez, goazen, bada, bidea eta helmuga neurtzera!

Hala, erabakia hartu behar zen hartan, Lasarte-Oriako esperientzia Euskal Herri osora hedatzea erabaki genuen. Pello Jauregi buru zuen ikerketa Euskal Herri mailan gauzatzea erabaki genuen. Soziolinguistika Klusterrarekin (SLK) gauzatu-tako kontratu bati eskerrak abiatu gara neurraldirako prestakuntzetan.

Neurraldia bera HPSren helburu estrategikoetan nola kokatzen den, zein egiteko duen eta nola gauzatzea irudikatu nahi dugun kontatzen duen amaiera gabeko testu labur bat da hau.